HAUTAKETA ETA PARTEHARTZE IRIZPIDEAK

(A) Parte hartzeko ezinbesteko baldintzak. Prozesutik kaleratua izateko arrazoiak

Balorazio irizpideak aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da:

1. Web orrian publikatuko den Hautagaien izen emate galdetegia ordurako betetzea.
2. Lehenengo mailako irakasgai guztiak gaindituta izatea.

Hautagai bat prozesutik kanporatua izango da:

3. Irakasleen errubrikan gutxienez 10 puntutatik 5 puntuko nota lortzen ez badu.
4. Hautaketa prozesua amaitu ostean, hautagaiak bere CV eta gomendio gutuna ezarritako epean entregatzen ez baditu.
5. Ikasturtean zehar eta aurreikusi gabeko salbuespeneko gertaera bat edo batzuen aurrean, bere irakastaldearekin batera, Ikasketaburutzatik edo orientazio zerbitzutik, bere praktikaldia kanpoan egitea gomendagarria ez dela adierazten duen txosten bat jasotzen bada.

(B) Ikasleen balorazio irizpideak

Hautagaiak parte hartzeko aurretiazko baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, hautagai bakoitzari emandako puntuazioa irizpide komunen arabera beteko da.

Balorazio-irizpideen helburua hautagaiak eskatutako mugikortasunarekiko duten egokitasunaren arabera ordenatzea izango da, hautaketa-prozesuan gardentasuna, objektibotasuna, trazabilitatea eta aukera-berdintasuna bermatuz.

Irizpide bakoitza adierazitako tresna komunaren bidez baloratu beharko da, eta dagokion ebidentzia gorde beharko da.

KONTZEPTUA	ERABILITAKO TRESNA	PISUA
Egokitzapen maila, kolaborazioa, gatazken ebazpena, autonomia, motibazioa, interesa, partaidetza	Banakako elkarrizketak	%25
Hizkuntza ikastaroen bertaratzea eta probetxua/eleanitzean ikastea/ingeleseko titulurik izatea	Ikastaroen bertaratze zerrendak eta ziurtagiriak.	%20
Irakasle taldeak betetako errubrika	Errubrika.	%20
Ingeleseko hizkuntza maila	Hizkuntza froga	%15
Ikasketa-espedientea	Noten ziurtagiria.	%20

Europar Proiektuen Batzordea

Co-funded by the European Union